

UTZIKERIAREN ONDORIOZ BERMERIK EZ BIRKOKAPENETARAKO

LABetik behin baino gehiagotan aipatu dugu: birkokatze prozedurak ez zuen ez gardentasunik, ez bermerik ezta sendotasunik ere. Orain gainera, patronalen presioei men eginez, Hezkuntza Sailak birkokapen batzordea eta jarraipen batzordea akordiotik desagerrarazi ditu.

29 greba egun egin ostean, 2019ko azaroaren 9an ELA, Steilas eta CCOO sindikatuak, Kristau Eskola eta Aice-Izea patronalekin zein Hezkuntza Sailarekin akordio batera iritsi ziren, eta horrela eman zioten Gizarte Ekimenean geneukan lan gatazkari amaiera, baita *“Irakasle plantillak zahar berritzeko eta enplegua mantentzeko”* akordioa sinatu ere. Akordio honen helburua errelebu kontratua finantzatzea eta matrikulazioaren jaitzieragatik galdu zitezkeen lanpostuak mantentzea izan behar zen.

LABek ez zuen akordioa sinatu. Besteak beste, hutsune nabarmen batzuk zituelako eta beteko zela ziurtatzeko berme gutxi. Gizarte Ekimeneko langileon zoritxarrerako, beste behin ere, denborak arrazoia eman digu.

Hezkuntza Sailarekin aipatu patronal eta sindikatuak sinatutako birkokapen akordioak, egon zitezkeen desadostasunak eta akordioaren betetzearen jarraipena egiteko sindikatu sinatzaileek, patronalek eta Hezkuntza Sailak osatutako batzordea zeukan.

Ikasturte honetan, akordioaren indarraldia bukatu eta Hezkuntza Sailak negoziazioa berriro ere abiatu behar zuenean, utzikeriaren ondorioz ez da inolako negoziazorik egon. Ondorioz, aldebakarreko agindu berria egin du Hezkuntza Sailak birkokapen batzordea eta jarraipen batzordea akordiotik ezabatuz.

LAB Sindikatuarentzat oso larria da birkokapen batzordea desagerrarazi eta akordioa bertan behera uzteko Hezkuntza Sailak hartu duen erabakia. Ikastoletako hitzarmenean ez bezala, Gizarte ekimeneko lan-hitzarmenean ez dago birkokapen batzordea jasota eta, beraz, ez ditu patronalak batzorde hori aitortzera behartzen, prozedura betetzeko oraindik ere berme gutxiago izanez.

LABen ustez oso kezagarria den egoera honen aurrean, harritzekoa da administrazio eta patronalekin batera, *“Enplegua mantendu eta irakasle-plantillak zaharbertitzeko”* akordioa sinatu zuten sindikatuek dagokionari ardurak eta konpromisoak eskatu ez izana.

Gainera, Gizarte Ekimeneko patronalek kaleratzeak finantzatzen jarraituko dute Hezkuntza Sailak emandako diru publikoarekin; eta sindikatu sinatzaileek babesa ematen diote neurri honi. Hau onartezina da!

LAB Sindikatuak erabakiarekiko kezka eta desadostasuna adierazi zion administrazioari apirilaren bukaeran egindako bileran; eta bide beretik dei egiten ditugu sektoreko gainontzeko sindikatuak, gurekin bat egin eta patronalaren aurrean birkokatze eta gardentasun printzipioa betetzera behartuko dituen mekanismoak defendatzeko. Era berean, deigarria izan zen akordioaren sinatzaile eta defendatzailea izan den eta sektorean gehiengoa duen sindikatu bilerara ez joan izana.

LABen aburuz asko dugu jokoan: jaiotze tasaren beherakada dela-eta matrikulazioa jaisten ari den garai honetan, lanpostuak defendatu behar ditugu, diru publikoaren erabilera gardena exijitu, eta ezin dugu ezer borondate eta asmo onen esku utzi; seriotasunez heldu behar diogu gaiari. LABek langile guztien lan baldintzak defendatzeko batasun sindikala eta mobilizazioak bultzatzen jarraituko du.

ANIMO ETA AURRERA!